

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BILARKO UDALA

Bilarko udal igerilekuetarako bi uretako sorosle bitarteko izendatzeko deialdia eta oinarriak, 2026ko udako aldi baterako programaren barruan

2026ko maiatzaren 13an, Bilarko alkateak honako hau dekretatu zuen:

1. Bilarko udal igerilekuetarako bi (2) uretako sorosle bitarteko izendatzeko deialdia eta oinarri arautzaileak onestea, 2026ko udako aldi baterako programaren barruan.
2. Deialdia ALHAOn argitaratzea eta oinarri arautzaileak Bilarko Udalaren egoitza elektronikoko ediktu taulan, aipatutako hautaketa prozesuan parte hartu nahi dutenek dagozkien eskaerak aurkeztu ahal izan ditzaten eta oinarriak aurkaratu ahal izan ditzaten, egoki iritziz gero.
3. Udalbatzari ebazpen hau jakinaraztea hurrengo bileran.

Parte hartzeko eskaerak 10 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Bilar, 2026ko maiatzaren 13a

Alkatea
ENRIQUE PÉREZ MAZO